

LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JAUNARI
BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK
GORAZARREA

Bilbo, 1994-X-28

LUIS VILLASANTE KORTABITARTE

Bilbo, 1994-10-28

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Ahaldu Nagusi jauna,

Agintari agurgarriak,
Euskaltzainkideak,
Andereak eta Jaunak.

VJ

Duela bi urte, bere jaioterrian, Euskaltzaindiak eskaini zion Aita Villasanteri *Iker* 6 liburua, omenaldi gisa. Euskaltzainburu ohiari parte hartu zuten euskaltzainek eskaini zioten bakoitzak bere lana, bere ikerketen fruitua, ez baitezakete ez Euskaltzaindiak eta ez euskaltzainek bertzerik eskain.

Egun, aldiz, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko seme bati egiten dio omenaldi be-rezi bat euskararen alde egin duen lan haundiagatik. Egia erran, euskararen alde Aita Villasantek egin duen lana munta haundikoa da. Hor dira lekuko hogeita zenbait liburu edozein alor hunkitzen dutenak:

— Lehenik kristautasuna eta fedea, ez baitu sekulan ahantzi Aita Villasantek gaz-taroan egin zuen botua.

— Euskal literatura, Axular bereziki aztertu duelarik *Geroaren* itzulpena eta edi-zioa, *Geroaren* hiztegia eta Axular-ez egin duen estudioa kaleratuz. Horien ondoan dau-de Lapeyre, Lavieuxville eta Mogel-en edizio kritikoak ahantzi gabe denok esku-pean daukagun euskal literaturaren historia.

— Gramatika “Luis de Eleizalde” deitutako sortan agertu diren 9 liburuek erakusten dute nahi ukan duela zabaldu euskara batuaren ezagutza, baitaki erakasle gisa peda-gogiaren balioa.

Ez dezaket ahantz nor izan den Aita Villasante Euskaltzaindian. Euskaltzainburu sartuz gero, 1970.ean, kudeatu ditu Erakundearen egin diren lanak, batzordeak sortuz ho-rietarik jalgi direlarik proposamenak Bergarako Biltzar Nagusian haundizki onartuak.

Arantzazu eta Bergarako biltzarren artean izan diren eztabaidak, kataskak eta pren-tsaren bitartez irainak, mespretxuak, kalumniak, Aita Villasantek jasan ditu guztiak se-kulan deus erranez edo erantzunez, iduriz apal zabiltzatelakotz ez zirela Arantzazuko gain hartara heltzen. Badakigu halere hitz mingarri horien oihartzunak heltzen zirela Aita Villasanteren belarrietara eta bihotza ximikatzen ziotela.



Luis Villasante eta Jean Haritschelhar

Nola ez aipa, bertzalde, egitura berri bat eman diola Euskaltzaindiari Aita Villasantek eta hori Jose Luis Lizundiaren laguntzarekin. Arrasateko Biltzarrean, 1979.ean, sortu dira batzorde iraunkorrak, bost orotara: Lexikologia, Gramatika, Dialektologia, Onomastika eta Literatura batzordeak, euskararen eremu guztiak hunkitzen dituztenak.

Aurten, Leioako Biltzarrean, erran nahi baita 15 urteren buruan, ikusi da zer izan den batzorde guzrien lana eta emaitza euskara batuaren bidean. Argi eta garbi agertu da zer egiten duen eta nor den Euskaltzaindia. Behar da itsu izan edo bederen itsutua izan ez ikusteko Euskaltzaindiak batzordeen bitartez Euskal Herriari egiten dion eskaintza oparoa:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*
- Gramatika,
- Euskal Hizkuntz Atlasa,
- Onomastikako lanak,

— Literaturako eta ikerkuntzako azterketak hala nola Euskararen Lekukoak, Iker saileko liburuak.

Nola ez ikus, holako lanak egin baldin badira azken urte hauetan, egitura berriari esker eginak izan direla, talde-lana aberatsagoa eta emankorragoa delakotz bakar-lana baino.

Aita Villasante, duela sei urte, hemezortzi urtez Euskaltzainburu izanik utzi zenuen kargua eta hemen bertan, Lehendakariaren eta bertze agintarien aurrean egin zen kargu aldatzea. Erran nuen orduan, jadanik zuk urratu bideari jarraikiko zela Euskaltzaindia, bide zabala eta egokia zelakotz, orain frogatua den bezala.

Erlisioneari eta euskarari eman diezu zure bizi osoa. Saristatua zara egun Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dizun omenaldiarekin. Horretaz pozten da Euskaltzaindia eta berdin euskaltzain guziak bozkariatzen dira ongi merezitua duzun omenaldiaz.

Eskerrak nahi dizkiet eman, bai Bizkaiko ahaldun nagusiari eta Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun guziei, ohoretzat hartzen duelakotz Euskaltzaindiak bere kide bati egnikako omenaldia. Eta zorionak Aita Villasanteri bihotz-bihotzez.

Eskerrik asko.

**LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JAUNARI
BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK
EGITEN DION GORAZARREA**

Bilbo, 1994-10-28

Jose Luis Lizundia

Jaun-Andreok:

Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Errektoregoan Euskaltzaindiak bere bilkura berezia egin zuenean eta, XIII. Biltzarraren amaieran, eguneko gai nagusian sartu baino lehen, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko kulturako diputatuaren gutuna irakurri zenean, Aita Villasantek berak euskaltzain guztiei bere erabakiaren berri eman zien, hots, nik bete behar nuela "laudatio" gisakoa. Bene-benetan eta bihotz-bihotzetik eskertzen dizut hautakizun hori. Uste dut arrazoi bakarra zera izan daitekeela: Euskaltzaindia itsasuntzi bat legez harturik, zu izan baitzara 18 urtetan kapitaina, kapitain bakarra; Koldo Mitxelena izan da zuk zeuk izendatua untzi horren legezaina. Oroitzen naiz *Ossian* saria Gasteizen Mitxelenak hartu zuelarik, Mitxelena berari errepikatu zeniola:

"Mitxelena, zeu izan zara gidari."

Gasteizen 1983.eko martxoaren 10ean esaten zenuen legez:

"...beharrezko genuen norbaiten itzala, larderia eta adorea; bere jakintzaren pisuagatik, kemen eta argitasunagatik, egoera gaitz haretan gidari izan zitekeen norbait. Eta norbait hori zu izan zinen gidari eta giltzarri aditz batasuna egiteko jarri zen batzordean."

Iker sailburu horrez gain, Zuzendaritzako beste ofizial hauek izan zenituen 18 urtetan: Eusebio Erkiaga zena; Jean Haritschelhar, buruordea, denbora guztian; Juan San Martin, idazkari eta diruzaina; Jose Maria Satrustegi, idazkaria; Endrike Knörr, diruzaina; eta batzordeburu eta euskaltzain oso oro. Eta gu, ez ni bakarrik, makina gelan edo "sala de máquinas"en geunden, eta hor ez nituzke ahanzi nahi, Juanjo Zearreta, ekonomi eragilea; Jose Antonio Arana, bibliotekaria; Ricardo Badiola, argitalpen eragilea; jubilatuta Xabier Gereño; eta Euskaltzaindiko egoitzako eta ordezkarietzako lankide guztiak. Beraz, makina gela horretako makinista ni izan nauzulako, hartu ninduzuen zeregin horretarako. Eta ni beste "18 urtetan erromes laiko izan baitnaiz, hilean behin gutxienez, Arantzazura joanez". Nafarroako Diputazioan aurtengo martxoaren 25ean esan nuen legez.

Zeregin honetan bi hautabide nituen: bata, biografia bat egitea eta bestea, hau ere ohikoa dena, nolabait puntu hautatu baten zentratzea. Bigarren hau hautatu dut bi arra-

zoiengatik: batetik, zure biobibliografia oparoa, berak ohi duen trebetasunaz egina, Jose Antonio Aranak, diruzain eta bibliotekari lankideak, egin baitzizun Gernikan egindako omenaldian irakurri zuena, eta zuri eskainitako *Iker* 6an argitaratuta dagoena. Eskerrak eman behar dizkiot Jose Antoniori baliagarri izan dudalako; baina nire "laudatio" hau beste ildo batetik joango da. Labur-labur aipamen batzuk egin ondoren, hau da: 18 urtetan Euskaltzaindiaren untxiaren kapitaintzari buruz eta baita ere zuk euskarari buruz eta orohar Euskal Herriari buruz eman duzun maisutasuna. Lehendabizi, bidezkoa da Bizkaiko Foru Diputazioak omenaldi hau egitea, zeren eta ezer izatekotaz, Aita Luis Villasante Bizkaiko semea baita, alde guztietatik gainera, ez bakarrik Gernikako Errenterian, lehen Ajangizko auzo zen horretan 1920.eko martxoaren 22an jaio zelako, baizik eta Gernika-Ajangiztik kanpo, amaren aldetik, aulestiarra zelako eta aitaren aldetik Mena ibarrekoa. Ibar hau egun Burgosko probintzia bada ere, Bizkaiko Enkartzioetara lotzea nahi izan du behin baino gehiagotan, Balmasedarekin eta Bilborekin harremanak baititu, Burgosekin eta Villarcayorekin baino askoz gehiago... eta hori izan ez balitz, 14. orrialdean Jose Antonio Aranak dioen bezala, A. Villasanteren gurasoak agian ez ziren ezkonduko:

"...Bestalde, Mena haranekoek Balmaseda edo Bilborekin zituzten harremanak salerosketa arazoetan, eta Jose Villasante ere, errentalaria zenetik, Bilbora hurbiltzen zen sarri askotan. Halako baten Isidora aulestiarrekin topo egin zuen eta Luisa ahizparentzat partidu onekoa izan zitekeela menatarra iruditu zitzaion. Luisarekin arpegi-ikustea proposatu zion eta hala prestatu zen Jose Villasante eta Luisa Kortabitarteren ezkontza, 1919an burutuz."

* * *

Berrogeigarren hamarkadaren azken alderantz hasi omen zinen euskara irakasten Arantzazuko ikastetxe serafikoko 14-15 urteko mutikoei. Euskaltzain oso 1951.eko irailaren 25ean izendatua izan zinen. Bizkaiko Diputazioaren bibliotekan Jauregi honen ondo-ondoan beraz egin zenuen 1952.eko maiatzaren 23an sarrera-hitzaldia, Federico Krutwigek erantzun sonatua egin zizularik.

* * *

Zure ezagutza, urteko hilen izenen beharrezana proposatzean egin nuen eta galdegai bat burutu, zuk zeuk gero, proposamen txostena egin zenuelarik. Hala diozu zuk zeuk *Euskera* agerkarian:

"... aztertu ditut Lizundia jaunak gai honi buruz bidalitako txostenak 20 dira guztira. Izenik gehienetan bat datoz iritziak, honek esan nahi du batasuna ia egina dugula, eta abar."

* * *

Arantzazuko azken bi Biltzarretan izan nintzen, 1963 eta 1968koan. Honetan egin zenituen bi txosten interesgarri. Benetan jakingarriak niretzat: "Batasunari buruz bibliografia" eta "Antzinako hitzen formaz". Eta noan Gipuzkoako Diputazioan 1970.eko uztailaren 29ra, egun horretan hautatua izan baitzinen euskaltzainburu eta ni han nen-

goen idazkaria ordezkatzeko, Juan San Martinek ez baitzuen egun hartan han izaterik. Oso ongi oroitzeko naiz egun horretaz, bozketaz eta abar. Zu izan zinen buru hautatua, Jean Haritschelhar, buruorde, Juan San Martin, idazkari eta Eusebio Erkiaga, diruzain. Kargu hartzea Ekialderen dagoen euskal herrialdearen hiriburuan, Maulen, egin zenuen, bertako Udaletxean 1970.eko urriaren 25ean, Salaberriren mendeurren ospakizunean, hain zuzen.

* * *

Hemen sartzen naiz, eta ene ustez, "laudatio" honen punturik garrantzitsuenan, hau da: zure kapitaintza. Hara, Mauleko Udaletxean esandako pasarte batzuk, zu ondo erretratzen zaituztenak:

"... Denok dakigu ondotoxo gure egungo arriskua zein den: gatza uretan bezala, Euskal Herria ere urtua, desegina izatea, bere dohain guztiak eta izate guztiak galtzen ditu: mintzaira, nortasuna, arimako bertute bereziak."

Eta aurreko buruari, han bertan baitzegoen, estimazio, adiskidetasun eta esker onak eman ondoren, Don Manuel Lekuonari, alegia, jarraitu zenuen:

"...gure asmoa (kargu berriona), ez da ba, erreboluziorik egitea, edo aurrekoek egin duten lana gutxietsi edo zokoratzea. Aitzitik, haiek egindakoa oinarri eta zimendutzat hartu, eta urrats bat aitzina ematea."

"Ohidura omen da (esaten zenuen) kargudun berriek bere lan programa aurkeztea...". "...Euskera zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Ez du beste politikarik. Euskera da beraren politika eta bandera. Euskeraren ona, euskeraren iraupena eta osasuna eragin, euskera gaur eguneko eginkizunetarako tresna zalui eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman... Eta bi erresumen mugen gainetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal diteken neurrian, guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatu eta enseiatu..."

"...Euskeraren etorkizuna eskolan garbituko dela: landare berriei, haur eta gazteei, irakasten ez ezpazae, gizaldi bat edo biren epean, euskerak erreka joko duela. Eta horregatik sortu da ikastolen mobimendu hori, gure haurrak eskolatzeko."

"Gure euskerak dituen korapilo eta problema guztientzat Euskaltzaindiak —bistan da— ez du erremedioa eskuan. Baina berari dagokion eremu edo sailean asko egin lezake, zenbait korapilo edo problemen soluzioa bilatuz. Hortarako sortua baita... Batzuek ez dute deus espero gugandik... Beste batzuek, berriz, dena gugandik espero dute..."

"...gure ahalmenak diren baino urrunago luza. Baina diren baino laburratgotzat jo ere ez. Guk ez dezakegu dena egin, baina ba dugu, noski, zeregin berezi eta erresponsabilidade larririk aski oren huntan."

Jarraian, 1970.eko azaroaren 25ean, beraz, hurrengo hileroko batzarrean, txosten hauek aurkeztu zenizkion Euskaltzaindiari:

1. “Euskaltzaindiaren egituraz”. Bertan aipatzen zenduelarik hiru sailetan Euskaltzaindia: Euskaltzainburuoa, batzordeak, ordezkariak.

Bigarren txostena hau zen: “Batzorde sortzeaz” eta “Donostiako ordezkari-tza horitxeaz”. Euskaltzaindiaren araudia berritzeko batzordeak proposatuz izen eta guzti.

Hirugarrena Euskaltzaindiaren prentsa bulegoaz egin zenuen.

Beraz, kargu hartu eta hasi zinen untzia berrantolatzen jadanik jarrita zeneukan ildo edo iparra ondo zehaztuta. *Eusker*a Euskaltzaindiaren agerkaria berriztatzeari ekin zenuen, gero; 1971.eko martxoko bileran:

“Baina denboraren sinaleei ere kasu egiteko mementuan gaudela iruditzen zait. Aro berri baten atarian gaudela uste dut. Eginak egin, urrats bat aitzina egitea dagokio Euskaltzaindiari, gaurko egokerari begiratuz. Legearen aurrean Euskaltzaindiaren nortasuna erabat onartua eta ezagutua izateraño joan nahi genduke...”

“...Eta horretarako, besteak beste, gure elkarte honek bere Boletina behar du.”

“...Euskaltzaindia instituzio bat da. Eta instituzio honek bere organua edo boletina behar du...”

“...*Eusker*a gaurkotu, eraberritu bat behar dugula, beste modu batetara antolatu eta gehiago zabaldu.”

Eta batzorde edo erredakzio kontseilu bat izendatzea proposatu zenuen. Ez nolana-hikoa, zu zeu euskaltzainburuaz gain, eta buruordea eta idazkaria, beraz, Haritschelhar eta San Martin; beste hauek proposatu zenituen eta onartu: “Alfonso Irigoyen, Lino Akesolo, Joseba Intxausti, Pierre Lafitte, Jose M.^a Satrustegi eta Luis Mitxelena”.

“...Ejekutibo lana, berriz, funtzionario lana, gorago esan dugun bezala, Lizundia jaunaren esku geldituko litzateke, hau da, Idazkari ordearen eskuan.”

Hemen Bilbon urte horretako apirillean egindako hileroko bilkuran “Hileroko batzar eguna hobeki aprobetxatzeaz” egin zenuen beste txosten bat. Jadanik lehenago “Idaztarauak estudiatzeko” batzordea ere proposatu eta onartua zenuen txosten interesgarri batez, Iruñean 1970.eko abenduan, egindako bilkuran. Eta hain zuzen, 1971.eko maiatzaren 28an Donostian egindako bilkuran lehen txostena aurkeztu zenion batzarreari: “Puntuazio marka batzuk, non, noiz eta nola jarri” lehen puntu legez.

Aramaion 1971n egindako bilkuraren ondorioz, “Herri Izendegi” batzordea sortu zen, sei lagunekoa, Mitxelena buru zelarik; eta bestalde, kontseilari atala herrialde guztietako aholkulariekin, Errioxa barne:

“Zabalegia ere izan ez dadin mugatu beharko dugu —zioen Villasantek— oraingoz behintzat toponimo handien izenak, herri-izenak, auzo handitxoak eta abar.”

Arautegi berria egiteko txosten eta ildo nagusiak ere berak markatu zituen, horretarako batzordeak bi eratara jarritz, atal eragilerako lau lagunek osatua eta aholkularitza atalerako beste sei. Arautegi berria 1972.eko urtarrilaren 31n bukatu zen. Baina arautegia onartzeaz aparte, gestiozintza ere agindu zuen euskaltzainburuak:

“...Euskaltzaindia instituzio bat da eta nahi dugu hala aitortua eta ezagutua izan dadin; legearen aurrean bere nortasuna aitortu dakion, alegia.”

Horretan ere aita Villasantek ez zituen ahazten lau erakunde sortzaileak, hots, lau Diputazioak, Bizkaikoa lehendabizi, zeren eta hemendik etorri baitzen Euskaltzaindia sortzeko asmoa. Batzorde eta eginkizun asko aipatzea nahiko nituzke, baina Villasanteren ‘curriculum’ean bada beste gauza bat, “Epe berri baten aitzinean” deitzen zena, gero “Urtebikoari begira” deitua; gaztelaniaz “plan de actuación”, deituko genioke. Hemen, Bilbon, 1972.eko abenduaren 29an, bere bigarren agintaldian, 12 ekintza aipatzen ditu: aitz batasunarena, herri eta herritarrena, biblioteca berriztatzea, hiztegiak, ordezkariak jartzea eta abar.:

“Aipamen berezi eta apartekoa merezi du oraindik beste obra handi batek. Guztiok dakizuten bezala, gure lagun Mitxelena aspaldiko urteetan Euskaltzaindiaren mandatuz hiztegia gertutzen hasia da.”

Villasantek Bilbon, 1972.eko abenduaren 29an aurkeztutako eta onartutako adierazpena aipatzera noa orain. Eta adierazpen hori urrezko letraz jarriko nuke nik, zeren eta bere maisutzagandik ikasi baitut nik eta politikarako ere baliagarri izan dudala uste dut, nire sektarismoak arbuizatzeko, eta hau da: euskararen eta Euskal Herriaren pluralismoa. Eusko Legebiltzarrean, etxe honetan, eta Gernikan, beraz, Bizkaiko Batzar Nagusietan ere baliagarri izan dut, eta hau da: gure Herriaren aniztasuna, pluralismoa ulertzen zentzurik liberalena berari zor diot.

Handik hiru egunera, Urte Berri egunean Arantzazutik adierazpen famatu hura zabaldu zenuen. Bi hizkuntzetan argitaratu zenez gero, gaztelaniazkoa dakart orain zuengana, euskara ulertzen ez duen norbaitentzat ere interesgarria izango baita:

“La Academia de la Lengua Vasca es una Institución fundada en 1918 bajo los auspicios de las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para velar por la lengua vasca, fomentar su estudio y uso, dar orientaciones para su cultivo literario, etc. En dicha Academia tienen entrada representantes de todas las regiones históricas del País y de todos los dialectos y variedades de la lengua vasca.

Por su misma índole, la Academia es una entidad puramente científico-cultural, apolítica, no enfeudada a partidismos. En su seno se da cabida al más legítimo y sano pluralismo.

La Academia ha comprendido siempre que el euskera, como lengua de un país, es un bien o patrimonio de todos, que, en consecuencia, no debe ser monopolizado por un sector, partido, clase, confesión, etc.

Dentro de esta línea ha trabajado siempre y trabaja en la actualidad.

Como en toda institución humana, es normal que también dentro de ella haya a veces discrepancias respecto a determinados problemas lingüísticos o literarios. Pero esto, naturalmente, no debe ser parte para paralizar la Institución, so pena de volverla inoperante y de incumplir los fines para los que se fundó y por los que tiene razón de existir.”

* * *

1973. urtea; uste dut oso ongi frogatzen duzula Aita Villasante, zu izan baitzinen gure Erakundearen, Euskal Herri osoa hartzen duen erakunde bakarraren kapitain zehatza. Euskal Herriaren izakera anitzari buruz, uste dut, bere gidaritzapean egin duela Euskaltzaindiak. Eta hau da: Euskal Herri guztia hartu duela bere eremutat Euskaltzaindiak eta ez dagoela beste erakunde bat hainbeste tokitan bildu denik; dela mendeurrena, dela ospakizuna, dela euskaltzainen sarrera, hitzaldi eta abar..., herrialdez herrialde Euskaltzaindiak arakatu du gure Herria. Hasi Zuberoan, bere sarreratik, Mauletik, eta beste mendeal basterrean bera buruzagi zela Avellanadako Batzar Etxean Euskaltzaindiak bere II. Onomastika Jardunaldiak egin zituenara. Berdin Barne-Jardunaldiak. Ez nuke ahanzi nahi gaurko Euskal Herri historikotik kanpo ere, bere agintaldian joan ginela Errioxako Donemiliaga Kukullara/San Millan de la Cogollara, Alfonso Irigoienaren sarrera-hitzaldira eta baita Juan Bautista Merino Urrutiaren omenaldia ere.

Besteen ideiak ere jaso eta onartu, bereak ez zirela esan gabe, beti ere nor zen ideiaaren emaila, horretan ere zintzoa izan baita Villasante, zenbait eginkizun berak bideratu eta gauzatu ahal izana: hala nola, "Emakumea euskal literaturan" Gabriel Aresti berak proposatua. Emakumeak euskal literaturan, "Emakumearen Nazioarteko Urtea" zenez, proposatu baitzuen Gabrielelek, txosten interesgarria eginez. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, euskal irakasle titulu emateko txostena... Mendeurrenetan, sarrera-hitzaldietan, euskal idazle, euskalari bat omenduz egin ohi zuen sarrera Euskal Herriko hainbeste tokitan; banan-banan irakurtzekoak dira, bai euskararen aldetik eta baita edukinaren aldetik ere: sakonak eta jakingarriak. Nik uste dut noizbaiten guztiak bildu eta *Euskeran* eta beste toki batzutan sakabanatuta daudenak bilduma baten argitaratzea mezeriko lukeela, hortik ikusiko bailitzateke aita Villasanteren nortasuna.

Bitor Garaitaonaindiaren mendeurrena zela eta Zaldibarren 1976.eko martxoaren 6an, ez bakarrik Euskaltzaindiaren legezko nortasuna, baita ere Euskara Batua eta euskalkien eta bereziki bizkaieraren harremanen berri emandako txosten paregabea ere, oso jakingarritzat jotzen dut. Garaitaonaindia izan baitzen, zaldibartarra izan arren, euskara batuarekin kezkatutariko bat, beste bizkaitar asko bezalaxe.

Urtebikoari begira epe barri baten aitzinean, 1977-78koari buruzkoak ez du ezer galtzerik. Politika giroaren aldatzeaz ere bai dihardu hartan. Beste eginkizun, eta berak zioen bezala, *Iker* eta *Jagon* Saileko lan batzuren beharraz. "Bai Euskarari" kanpainaren aldeko jaialdiaren amaieran Santimamiñeko futbol zelaian, hemendik hurbil, 1978.eko ekainaren 17an, esandako hitzek ere bere kapitaintza ondo markatzen dute. Han aipatzen ditu Orixeren hitzak:

"Cualidad de pueblo/herritasuna, qué es eso, sino la vasquía y cuál es su constitutivo ingrediente, si no único, sí uno de los principales, el euskara, sin duda. El euskara es el que nos ha dado nombre de pueblo y conciencia de pueblo: Euskal Herria/ País del euskara."

Beste puntu bat aipatzea nahi nuke Villasanteren gidaritzapean egindakoa. Euskaltzaindiak bi urtez behin kargu berriztatze bakoitzearen ondoren, 1979tik Barne-Jardunaldiak egiten ditu, helburu nagusi bi izaten dituztelarik, gutxienez: bata, Euskaltzaindiko batzordeak berriztatzea, eta bestetik bakoitzean izaten du zeregin propioa. Horretan

ere hasieran, lehendabizikoak beti herrialde desberdinetan egin ditugu: 1979an Foruan, frantziskotarren komentuan eta luze ez balira, irakurtzekoak dira bere sarrera-hitzak:

“...oraingoa bilera hau gure barneko egoera bera aztertzeko da, gure ajeak eta hutsak zein diren ikusi —hots, gure ahuleziak, gaitzak eta akatsak—, eta guzti honi erremedioa ipintzeko eta egoera hobetzeko, bideak bilatu; eta azkenik, denon artean elkarrizketa eginez eta eztabaidatuz behar diren erabakietara heldu. Gaurko uneak eskatzen duena nola hobeki erantzun, Euskaltzaindia nola tresna bizkorrago bihurtu, gaurko eginbeharrei erantzuteko nola Euskaltzaindia gai bihurtu. Horretarako gure egituran zer aldaketa egin behar den ikusi eta ahal dela erabaki. Horra zertarako diren jardunaldi hauek.”

Handik bi urtetara, Gipuzkoako Loiolan, gero Arabako Angoston, Nafarroako Le-karozen, Lapurdin Iparraldeko Angelun eta berriz Gipuzkoako Lazkaon, Iparraldeko Zi-burun eta azkenik, iaz, Bizkaiko Zornotzako barnetegian egin ditugu, bakoitza bere gai bereziekin. Bilkura bakoitzeko sarrera batzuetan esandakoak irakurriko genituzke den-bora bagenu.

Sei liburu: *Hacia la Lengua Literaria Común, La Declinación del Vasco Literario Común, Palabras Vascas Compuestas y Derivadas, Estudios de Sintaxis Vasca, La Oración Compuesta, Sintaxis de la Oración Simple, La H en la Ortografía Vasca* izene-koak, in ‘Colección Luis de Elizalde’. Ez pentsa alperrik hautatu zuenik aita Villasantek izen hau. Hitz bitan esanda, Luis Elizalde, Euskaltzaindiko lehen lau sortzaileetarikoa: gipuzkoarra, bergarra jaiotez, bizkaieraduna euskalkiz, Gasteizko Institutuko irakasle izan zen; Bizkaiko Diputazio honek —Sota buru zen Diputazio abertzaleak— Eduardo Landetaren bidez Bizkaiko auzo-eskolen hezkuntza elebidunaren arduradun izendatu zuen; oker ez banago, EAJren EBBkoa ere izan zen. Luis Elizaldek aipamena merezi zuela uste izan dut gaur gauden foru erakunde honetan. Nork daki Elizalde euskara batuaeren aintzindaritariko bat izan zela?

“¿Qué es la lengua literaria? —dio lehen liburuan—, es una forma cristali-zada, convencionalmente fijada, unificada y normalizada, que adoptan los usuarios de una determinada lengua a la hora, sobre todo de escribir. Hablada o viva está sometida a una ley de disgregación, de evolución, de parcelación, cambio y diferenciación incesante. Mientras esto no suceda, todos los pueblos que han adquirido un cierto grado de civilización y cultura, han creado ese instrumento que se llama la lengua literaria que conviene a los que poseen un título de distinción.”

Liburuxka hauen bakoitzaren sarreran pieza literario jakingarriak eta irakurgarriak daude, gustura aipatuko nituzkeenak, astirik balego.

Villasanteren buruzagitzapean Euskaltzaindiak hasten ditu Jardunaldi bereziak, hala nola Onomastikakoak: Gasteizen, Urduñan eta Lizarran; Dialektologiakoak: Deban, Do-naixti-Ibarren, Markinan; Gramatikakoak: Beloken, Leitzañan, Plentzian eta abar. Eus-kaltzaindiaren eginkizunak, euskaltzain oso eta batzordekideez gain, zabaltzeko gai ho-rretan ari zirenen artean. Ahoskerari buruz: lehenak Azkoitian, Durangon, Angelun eta abar.

* * *

Bizkaiko Diputazio honi buruzko aipamenak behin baino gehiagotan egin ditu. Hiru

aipatuko ditugu: bata, 1984.eko uztailaren 27an, Patxi Zurikarai, kultura diputatuaren aurrean, Euskaltzaindiaren egoitza berria hartzean estreinuko aldiz, hau zioen:

“Gauza jakina da Euskal Herriko lau diputazioen umea edo sorkarria dela Euskaltzaindia eta lokarri hori gogoz aitortzen dugu, baina aparteko modu batez Bizkaikoarekin lotura bereziak ditugu, berau izan bai zen Euskaltzaindia sortzeko arazo honetan aurrea sortu zuena”.

Bigarrena, egoitza berriari buruz hitzarmena sinatu zutenean, Bilbon 1985.eko uztailaren 10ean, berak eta orduan diputatu nagusi zen Jose Maria Makua Zarandonak:

“Euskaltzaindiaren izenean esker onik biziena agertu nahi deusat Bizkaiko Diputazioari egin deuskun mesede paregabe eta eskerga honengatik.”

Hirugarrena, etxe honetan, Bilboko euskal katedraren 100. urteburua, 1988.eko uztailaren 1ean, izan zen. Hau dio:

“Baina kasu eman diezaiogun aldiari, histori uneari, izan ere, orduan Bilbon presezki, zerbait berria sortzen da, eta sortzaileak, Arana eta Azkue izango dira.”

Bilbo hiri handi, zabal eta aberats sortzen ari denean, eta bertan, euskarak krak egiten duen unean, zer da eta orduantxe gertatzen da fenomeno berri hori.

Azkenengoz, mahai honetatik, 1989.eko urtarrilaren 29an, hitz egin zuen, hemen hartu baitzuen berak Iparraldean egin zuen bezalaxe, euskaltzainburu berriak —Jean Haritschelharrek— buruzagitza hartzea, kapitaintza hartzea. Hil batzuk lehenago, berak Urbiako istripua izan ondoren, eta agian, konturaturik bere urteak aurrera zihoazela, pentsatu zuen bat ere espanturik gabe kargua utzi behar zuela. Oroitzen naiz hemen bertatik hurbil, Iralabarriko komentuan, berarekin despatxatzen izan nintzen baten, aprobetxaturik Arantzazura joan beharrean bera Basurtuko Ospitalera zetorrela, galdetu zidan atariko bisitagelan, 1988.eko uztailaren 6an, nola zeukan kargua uzteko asmoa eta ia eragozpenen bat egon zitekeen juridikoki Frantziako Errepublikako hiritar bat euskaltzainburu izateko, Jean Haritschelhar, alegia. Nik ez nuela ikusten erantzun nion, kontuan izanik bestalde, Espainiako Erresuma Europar sarturik horrelako mugak gaindituak zirela eta ulergarri izango zela.

* * *

Harrezkero jarraitzen du, hala eta guztiz ere, Euskaltzaindiarentzat eta euskararentzat lan egiten, Euskara Batuko batzordekide bezala, zintzo-zintzo bileretara etorri eta lana eginez. Eredugarri izan da horretan ere, buruzagitza uzteko nolako umiltasuna, liberaldutasuna, apaltasuna izan duen Gernikako Errenteriako seme honek.

Azken puntu bat, *Euskararen Auzia*z liburua da. Liburu ederra, mardula eta euskaltzale guztiok irakurri beharko genukeena. Lehen kapitulua benetan interesgarria: “Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak”.

* * *

Ez da Villasanteren omenaldi honetan aipatu izan dudana Euskaltzaindiarekikoa

bakarrik, zeren eta azpi-azpian, Euskal Herriko herrigizon garrantzitsuenetariko bat izan dela, esango nuke: herrigizon/gizon publiko, ez politika mailan, baina bai publikotasunean eta bai Euskal Herriaren ezaguera sakoneko bat izan duena bere aniztasun guztiakin, hizkuntzarena barne. Eta hor ikusten da bere gobernamendu zentzua, erakunde bat, Euskal Herrian nagusienetarikoa, gobernamendu horren zentzunik bat ere absolutistarik gabe; alderantziz, botere aginteen banaketa ondo egiten jakin duena, eta hasieran esan bezala, itsasuntzi baten kapitaina izaten jakin du, ofizialei dagokien gidaritza ematen, ez bakarrik utzi baizik eta bultzatu, makinetan gabiltzanoi lagundu eta kontuak hartu... Hori da gaur Bizkaiko Diputazioak eta berarekin batera bizkaitarrok eskaintzen dioguna.

Zorionak eta eskerrik asko.

BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAK
LUIS VILLASANTERI
OMENALDIA

Bilbo, 1994-X-28

Luis Villasante Kortabitarte

José Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusi agurgarria.

Bizkaiko Diputazio txit leiala.

Euskaltzainak.

Jaun-Andreak: bake eta on guztioi.

Harriturik eta unkiturik ere banago omenaldi hau dela eta. Edozein modutan ere, eskerrak eman beharrean naiz eta gogotik ematen dizkiot, bai Euskaltzaindiari eta bai Bizkaiko Diputazio txit agurgarriari.

Gizonaren bizitzan gertatzen dira noberak gutxien usteko lituzkeen bezalako bideak hartzea. Garai batean nork esango zidan niri hartu ditudan egitekoak niregain hartu behar nituela? Neronek ere ez dakit zuzen esaten zergatik hala izan den, baina iduritzen zait bizitzako gora-beherek, gure inguruan ikusitako gertaerak eta gerrek izan dutela honetan parte ez txikia. Eta noberaren bizitzan zehar ezagututako adiskideak; etab.

Salbatore Mitxelena fraidea, eta geroago beste Mitxelena (Luis); eta nola ez aipa, Federico Krutwig jauna, zeini zor diodan Euskaltzaindian egotea; baina ez noa izen-lerrokada luzatzeraz. Komentua ere aipa beharrean naiz, noski, zeren bestela, jaioterritik nekarren euskal landare makala ezingo nuen inondik ere hazi eta aberastu.

Eta zerk eragin zidan euskal alor hau lantzeraz? Ba ote dakit neronek ere? Honetan ere uste dudana esango dut, baina ez dakit ziur gauzak hala ote diren. Gerra eta gerra ondoko giroaz euskal landarea galtzeko arriskuan ikusten nuen, eta pentsatu nuen —ez nik bakarrik, beste batzuekin batean baizik— lagundu behar niola. Eta komentu barruan aurkitu nuen lan horretan aritzeko behar zen giroa eta bai bide batzuk ere. Guzti horiekin zordun naiz, bada. Eta denei eskerrak eman beharrean naiz.

Eta Euskaltzaindia ezin dut, noski, aparteko modu batean aipatu gabe utzi. Oso gaztea nintzela hartu ninduen honek bere galtzarrean. Urte txarrak ziren euskal gaurzantzat. Gero jakin dudanez, eta Azkue jaunaren baimenaz, noski, F. Krutwig jauna hasi zen Euskaltzaindian gertatutako hutsuneak hornitzen, eta beste batzuen artean ni ere

aukeratua izan nintzen. Euskal alorrean zer nuen eginik orduan? Hutsa. Arantzazuko errebistan agertutako artikuluren bat edo beste (1).

Baina Euskaltzaindian sartzeaz gauzak ez ziren asko aldatu. Izan ere, hutsa edo hutsaren pareko zen Euskaltzaindiak orduan egin zezakeena. Bilerak, bai, egiten ziren, eta beroietara joaten nintzen, baina behin baino gehiagotan nire buruari esan nion mezezi ote zuen joatea. Konpromisua, ordea, hartua nuen eta emandako hitza bete behar nuela iruditu zitzaidan.

Esan behar dut, gainera, ene baietza eman baino lehen, gure Aita Probintzial Leteren aholkua galdegin nuela. Eta hark esan zidan baietz, eskainitako izendapena onartzeko. Zergatik egin nuen hori? Ikusten nuelako honelako kargu batek baldintza zezakeela asko edo guti nire bizitza. Horregatik jo nuen gure Probintzialarengana baimen edo iritzi eske.

Nire sarrera-hitzaldia hemen Diputazioko jauregi ondoan den liburutegian ospatu zen 1952ko maiatzaren 23an (2).

Eman zidaten diploma sinatzen dute Nazario Oleaga jaunak idazkari gisa eta Lekuona'tar Imanolek euskaltzainburuaren orde. Azkue jauna ordurako hila zen, noski —aurreko urtean hila—. Euskaltzainburu edo buru orde Ignacio María Etxaide zen; hau Donostian bizi zen eta ez zen ospaketara etorri. Baina ospakizun hartan ordezeko izatea Lekuona jaunari utzi zion.

Apurka-apurka Euskaltzaindiaz zuzenean zer ikusi handirik ez zuten lanetan sartu nintzen, hots, Axular, euskal literaturaren historia, etab.

Euskaltzaindiak 50.eko hamarkadan antolatutako biltzarren artean azpimarratzekoa dela, uste dut, 1958an hemen Bilbon egin zena. "Euskal hitzak zein diren", hau zen biltzar hark argitu nahi izan zuen puntua eta egin ere konplutuki bete eta erabaki zuena. Mitxelena izan zen orduan ere bere jakituriaz auzia erabaki zuena —eta desterrutik etorri berri zen Sebero Altube jauna ere bai—. Puntu hau eztabaidatzea eta erabakitzea behar-beharrezkoa zen orduan, zeren eta gehiegizko purismo batek azpian hartua eta katigatua zuen euskara. Euskaraz erabiltzen zen hitz bat erdaratik zetorrela ikusten zen bezain laster, hitz hura kanpora bota behar zen eta hark utzitako zuloa estaltzeko, beste bat asmatu behar zen. Baina jokabide horrekin nora joan gintezkeen? Inora ere ez.

Beste biltzar bat sonatua, 1968an Arantzazun, egin zena dugu. Ordurako askok ikusten zuten euskarak, biziko baten, idatzizkoan behintzat, batasun batera jo behar zuela, eta hortarako euskalki bat —edo bakarrik edo beste euskalki batzuetatik gai batzuk hartuz— proposatzen zuten batasun-bide.

Hemen ere Mitxelena izan zen argia ekarri zuena. Euskalkiak batasun ezaren sorzaile eta ondorio direlarik, nolatan eraman gaitzakete batasunera? Ez du itxurarik. Be-

(1) Eta Euskaltzaindia aipatua dudanez gero, adierazi nahi dut Euskaltzaindian badudala nire lagun bat nire berekoa dena, hots, J.A. Arana Martija; asko zor diodana, gainera, nire bibliografia etab. idatzi baitu. Adin berekoak ez izanik, ordea, eta ni neure jaioteritik Arantzazura oso goiz joan nintzelako, ez dugu berandura arte elkar ezagutzeko abagune handirik izan. Dena den, gaur eskerrak eman nahi dizkiot berari niri buruz egin duen lanagatik.

(2) Sarrera-hitzaldia *Boletín de Amigos del País* delakoan agertu zen, artean ez baitzen *Euskera* azaltzen. Ikus BAP (1952), 91-119, 259-298.

raz, euskalkiak sortu baino lehenagoko euskara batuan behar ditugu begiak kokatu, batasunera joan nahi badugu behintzat. Baina, jakina, antzinako euskara batuan badira gaur zeharo hilak dauden gauzak, eta horiek berpizten ez dugu denbora galdu behar; orduko gauzak, ordea, orain ere, oraingo euskeran edo gaurko euskeraren parte dexente batean bizirik badaude, horiei bai kasu egin behar diegu. Era honetara Mitxelenak marraztua utzi zigun euskara batuaren itxura eta zeregina. H letraren onartzea lege honen aplikazio bat baizik ez da.

Beste arazo larri bat ere bazen garai hartan, eta Euskaltzaindiak aurpegi eman zion beroni, hots, euskal irakasle tituluak sortzeari. Artean ez baitzen ia inon ere euskara irakasten. Eta garbi ikusten zen, euskara biziko bazen, eskolan sartu beharra zuela. Eta horretarako zer egin zuen Euskaltzaindiak? Euskal irakasle titulu hori berak sortu, ikastaroak eta etsaminak antolatu eta etsaminak gainditzen zutenei hartako diploma eman. Urrats handia izen zen hura. Euskaltzaindiak, bada, bere kontutik eta beregain hartu zuen premia honi erantzutea. Ekintza honek arrakasta eta erantzun ezin hobea izan zuen gure Herrian. Jakina, gero, autoritate publikoak bere gain hartu zuen, bidezko den bezala, zeregin hau, eta orduan Euskaltzaindiak utzi egin zuen. Baina hasiera obra honi berberak eman zion.

Beste lan handi bat ere egin zuen Mitxelenak batzorde baten laguntzaz, hots, ordenagailuz bildu euskeraz mendeetan zehar inprimatu den guztia. Hortik gero prestatu da edo prestatzen ari da oraindik *Orotariko Euskal Hiztegia* deritzona, hots, euskeraz atera den guztiaren biltegia bezala dugun hiztegia. Gaur arte 6 liburu atera dira eta oraindik hiztegi hori "e" letran doala uste dut. Euskeraz mendeetan zehar atera den guztiaren biltegi honetan izango dute, bai euskal idazleak, bai euskalariak, jakin-iturri paregabea.

Badakit, azkenik, Euskaltzaindian lanean ari diren beste batzorde batzuek ere hemen hitzegin beharko nukeela: adibidez, Gramatika batzordeak, Onomastika batzordeak etab., baina bego, labur egon behar dudala esan didate eta. Dena hemen aipatzerik ez dago.

* * *

Ohitura omen da honelako egokieratan zerbait eskatzea. Nik, bada, hauxe eskatuko nuke: Juan Mateo de Zabalaren *sermoiak* argitaratzea. Denak ez badira, sail bat bederen aterako nuke, hortarako laguntza izatekotan, jakina.

Nor zen, bada, Juan Mateo de Zabala hori? Bilbotarra zen, San Antongo elizan bataiatua. Zarautzen hil zen 1840. urtean. Frantziskotar fraidea (*).

(*) Aita Zabalak esaten digu, bera fraide sartu ondoren, apaiz-karrerako estudioak euskerarik egiten ez zen lekuetako komentuetan egin behar izan zituela, eta orduan euskeraz dorpetu egin zela. Gero, berriz, apaiz-lanak euskeraz egingo bazituen, euskera berreskuratu beharrean gertatu zela. Meza eman ondoren, Bilbon bertan bilbotar gazteei eskolak ematen jardun zen. Baina garai nahasiak ziren haiek, bonapartismoagatik batez ere. Galizia aldera joan beharra izan zuen, eta han Herbon-go (Coruña) Mixiolari-kolejioan bi urte pasa zituen, eta hain zaletu zen Mixiolari-kolejio horietan egiten zen bizimoduaz, non, handik itzultzean, Zarauzko Mixiolari-kolejioan sartzeko baimena eskatu zuen, eta baita baimen hori lortu ere. Zarauzko kolejio horretako nagusi edo Guardián bi aldiz izan zen, baina han ere egun txarrak ikusi behar izan zituen karlista eta liberalen arteko istiluegatik bereziki (Ikus *El Verbo Regular Vascongadore*n hitzaurrea eta Aita Zabalak etxekoek egindako eskutitz batzuk).

Ez naiz hemen hasiko Juan Mateo Zabala honek hizkuntz-maisu bezala dituen goi-beheak neurtzen. Zertxobait esan beharra dut halere. Hark bere bizi-denboran ez zuen bere lanik agertu. Bera hil ondoren, ordea, Gipuzkoako Diputazioak argitaratu zuen Aita Zabala honen *El Verbo regular vascongado del dialecto vizcaino, 1848*. Eta Bonaparte Printzeak bere kontuz agertu zuen, baita ere, Aita Zabala honen beste lan bat, hots, *Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, San Sebastián, 1856.

Bibliografi lana da, noski, askenik aipatu dudana hau. Bibliografi honetan esaten du Zabalak, egilea bizi denean, berak ez duela liburuaren kritikarik egingo liburuak bere ustez kritika onik merezi ez badu (Hizkuntza aldetiko kritika du gogoan gure Zabalak (3)).

Honekin esanik dago, noski, batere kritikarik egiten ez duenean, egileak ez duela, Aita Zabalaren ustetan, kritika onik merezi. Eta hauxe da kontua: berak bere bibliografian aipatzen dituen euskal idazleen artean badira bi, bera bezalaxe, Zarauzko Kolejio edo komentu hartako fraide zirenak, hots, Aita Añibarro eta Aita Jose Kurz Etxeberria oiartzuarra. Lehenbizikoari buruz laudorio handiak egiten ditu Zabalak. Bigarrenari buruz, aldiz, ez du deusik esaten, eta aldeaz aurretik esan duenaren arabera, badakigu isiltasun honek zer esan nahi duen: ez duela, bere ustez, kritika ona merezi.

Oiartzuar idazle horrek bi itzulpen gutxienez zituen argitaratuak, hots, *S. Frantzisko Saleskoaren Debozioso bizitzarako sarrera*, 1821ean aterea; eta *Jesusen imitaziozko liburu* edo *Kenpisa*, 1829an.

Aita Zabalak, bada, liburu hauei ez die batere kritikarik egiten, eta, jakina, aldeaz aurretik egin duen abisuaren arabera, badakigu ez zuela liburu hauei buruz iritzi onik, euskararen aldetik, noski. Erdal hitz asko erabiltzen zituen oiartzuar honek bat ere premiarik gabe, gure Zabala ustetan.

Oiartzuarrak, ordea, bazekien nonbait Juan Mateo Zabala iritzi berri eta erantzuten du hitzei kasu egitea haurkerietan ibiltzea dela (4).

Baina, jakina, nahiz idazleek nahiz hizlariak, nolatan ez dute hizkuntzaren eta hitzen kontu izango? Arazo honetan Juan Mateo de Zabalak arrazoi zuela esan behar dela uste dut.

Eta pasa gaitezen, beste gabe, Aita Zabala euskal idazkiei buruz zerbait esatera. Aita Zabala euskal idazkiak sermoiak dira, mixioetakoa sermoiak. Bizkaieraz daude.

Gauza bitxia da benetan Aita Zabala sermoiekin gertatua. Zarauzko komentua-ren artxibuan —bera bizi eta hil zen komentuko artxibuan, alegia— Aita Zabala beste gauza batzuk gorde dira, baina sermoirik ez. Aita Juan Ruiz de Larrinagak gure Zabala honen gauzak arretaz aztertu zituenak, hark egindako beste lanak xeheki aipatzen ditu, baina sermoien aipurik ez du egiten (5). Neronek ere neure *Historia de la Literatura Vasca* liburuan ez ditut aipatzen.

(3) Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 268.

(4) Ikus S. Frantzisko Saleskoaren bizitzarako sarreraren hitzaurreko nota batean esaten duena. Ikus, baita ere, VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 275, nota 92.

(5) RUIZ DE LARRINAGA (Juan): "El Vascófilo Franciscano R.P.Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio bio-bibliográfico. Con un apéndice de D. Luis de Lezama-Leguizamón", San Sebastián, 1927.

Zer gertatu zen, bada, Aita Zabalaren semoiekin? Inork ere ez zekiela non zeuden, eta ez ba ote ziren ere.

Orain, berriz, badakigu hiru liburu guttienez utzi zituela Aita Zabalak ongi josiak eta enkuadernatuak, bere letra ederraz idatziak. Hiruek dute titulu berbera, hots, *Doctrina ta Sermoia*c. Titulu bikoitz honek zer ikusi du Zarauzko herri-mixiolariak mixioetan egiten zituzten predikuekin? Izan ere, bitarikoak izaten ziren prediku horiek:

- 1) *Doktrinak*: Zer ziren hauek? Entzulearen adimena argitzera zihoazenak: sinestu behar diren egiak, gorde behar diren aginduak, hartu behar diren sakramentuak, etab.;
- 2) *Sermoia*k: hauek gizonaren bihotza eragin eta bultzatzera doaz, konberti dadin, etab.

Hiru liburu azaldu direla esan dut. Bat, non, eta Jerusalemen. Bai, Jerusalemen. Han dago orain ere, baina badugu beronen fotokopia. Nola izan zen liburu hori hara joatea? Ez dakigu zuzen, baina badakizue frantziskotarrak direla Jesusen bizitzako gertaerak gertatu ziren toki santuen zaindaria. Fraide euskaldunen bat joan zen hara nonbait, han urte batzuk pasa eta gero berriz itzultzekotan, baina han hilko zen eta han gelditu zen liburu hori. Nikolas Zumalde frantziskotarra izan zen liburu honen berri ekarri ziguna. Ondo gogoan dut behin nola erakutsi zidan fotokopia bat, bertan ageri zen letra norena izan zitekeen galdetuz. Eta nik ikusi bezain laster erantzun nion:

“Letra hori Juan Mateo de Zabalarena da. Aspalditxotik dut ezaguna”.

Oso kaligrafia ederra, dotorea eta argia zuen, ba, Aita honek.

Bigarren liburua, aldiz, Irungo pasionisten komentuan gorde izan da. Eta hirugarrena Bermeoko gure komentuan.

Nire susmoa da, bada, Aita Zabala hil zenean —eta handik guti Mendizabal-en desamortizazio-legea aplikatu zen Gipuzkoan, erlijiosoen bizitza debekatu; apaiz bezala, ordea, bizi zitezkeelarik. Nik uste dut, bada, Aita Zabala hil zenean fraide batzuek hartu zituztela haren sermoi-liburuok beren predikuetarako lagungarri izango zituztelako ustetan. Urte askotan liburuon jabeak zein ziren eta beroien egonlekuak non zeuden jakin gabe egon gara, baina azkenean agertu dira.

Ni euskaltzainburu nintzela, eskatu nion Itziar Rekalderi —Gasteizko Euskaltzaindiaren ordezkartzako langileari— beste lanik gabe zegoen uneetan, ordenagailuz pasa zituztela sermoiok, eta zati handi xamarra egina dago. Baina ordenagailura pasatua originalaren arabera aztertu eta zuzendu ere beharko da, noski.

Adierazi nahi dut, bada, behar den laguntza eskuratzen badut, eta Jainkoak osasuna emanik, bilbotar honen euskal lanaren zati bat bederen argitara nahi nukeela, eta nire ustez argitaratzea merezi duela.

Badakit nik liburu hauek ez direla gehiegi saltzen; baina gure hizkuntzaren lekuko dira, eta behar ditugu ezagutu, aztertu eta eskutan erabili, hizkuntzaren beraren sustraiek gudan erro sakonagoak egin ditzaten.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK
AITA LUIS VILLASANTE KORTABITARTE
JAUNARI OMENALDIA

Bilbo, 1994-10-28
Jose Alberto Pradera,
Bizkaiko diputatu nagusia

Agintari,
Euskaltzain,
Lagun,
Jaun-Andreok:

Egun eder-ederra dogu gaur Bizkaian eta Foru Aldundi honetan, Bizkaiko seme ospetsu baten omenaldia ospatzen dogulako eta Bizkaiko seme horrek egin dauzan hainbeste lan eta hain onak gomutatzen doguzalako eta berak harrotasunez betetzen gaituelako bizkaitar guztiok.

Lizundia jauna, Aita Villasantek, besteak beste, Euskaltzaindiaren eta euskara baturaren inguruan egin dauan behar handiaz ihardun izan da, eta goragarria da benetan lan horixe, Bizkaiko semeok harrotzen gaituena, Bizkaitik gogor bultzatu eta aurrera eroan izan dalako beti batasunaren ardura eta ikurrina. Azkue-tik hasi eta Villasante Aitak, neurri batean, burutua, tartean beste asko gogora ekarri daikeguzala, Gabriel Aresti bera izan daiteke bigarren garaiko suspertzailerik beroena.

Beharbada, harritu egingo zaitue ni orain bizkaieraz berbetan entzuteak, baina guk etxeko berbetea erabilten badogu be, eta Bizkaiko Ahaldun Nagusiak arrazoi gehiagoz oraindino, ez dogu sekula batasunaren arazoa zapuztu. Bizkaitar euskal idazleek gipuzkeraz hainbeste aldiz eta batere higuinik barik idatzi dabe eta batasunaren gurditik be ahal izan daben neurrian tira egin dabe. Hizkuntzak herria egiten dau, eta Bizkaiak ez deutso sekula ukorik egin ezertan Herri honen batasunari, eta askoz be gitxiago hizkuntzari jagokonez, hauxe dalako herriaren izatearen ardatza.

Oso-osorik hartzen doguz baita geure egiten be Lizundia jaunaren berbak, Aita Villasantek ondo baino hobeto irabazi dauzalako omenik onena eta barbarik ederrenak.

Urterik okerrenetan hasi zan euskararen aldeko beharretan, artean askorik egiterik be ez zegoenean. Gazterik hasi zan idazten, batez be herri xehearentzat, *Arantzazu* aldizkarian, eta horren garrantzia ezin izango dau inork ukatu, mila bederatziehun eta berrogeita bederlatzi eta hamarreen eta urte horreetan, euskara euskaldunen etxe askotan sartzen zalako *Arantzazu* aldizkariaren eta, besteen artean, Aita Villasanteren eskutik.

Gero lan mardulagoak eta sakonagoak egingo ebazan Aita Villasantek, euskarari buruzkoak, eta euskararen inguruan, baita euskal idazle klasikoak ezagutzera emoten be.

Lehenengo lantxoak mila bederatzehun eta berrogeita lau idatzi eban eta aurten bete dira Aita Villasante idazten hasi zaneke berrogeita hamar urteak. Zenbat eta zenbat ez ete dau idatzi ordutik! Sinistu be ezin leiteke egin pertsona batek, gaur egunean, aspaldiko idazleen antzera, hainbeste idatzi leikeanik berak bakarrik. Nahikoa da Aita Villasantek urterik urte idatzi dauzan lanen zerrenda ikaragarria ikustea harri eta zur geldituteko.

Esan daiteke, kezka gitxirekin esan be, euskal literaturaren ezagutza Euskal Herrian Aita Villasanteri esker lortu dala, bere literaturaren historian edan dabelako gaurko irakasle guztiek. Axular benetan ondo ezagutzera be berak emon deusku guztioi. Beste hainbeste lan, nahiz morfologiaz, nahiz beste autoreei buruz, berak eskeini deuskuz. Horrez gain, bera be euskal idazle on eta ugaria da eta, berak dinoenez, Euskal Herriari eskeini deutson emoitzarik onena euskaraz idatzi dauan guztia da.



Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia eta Luis Villasante

Hori gutxi balitz, Aita Villasantek, lehen esan doguzan urte lior hareetan, Arantzazuko gazteei euskara erakusten jardun eban eta horren emoitzek be oraindino jarraituten

dabe. Irakaskuntzaren haunditasuna hortxe dago: ez da jakiten noiz amaituten dauan, inoiz amaituten badau, fruituak emoten. Aita Villasanteren eskuetatik igaro ziren gazteak oraindino lanean dabiz han eta hemen, heldutasunik oparoenean eta fruiturik onenak emoten.

Barrio dinot, ondo merezi dau Gernikako seme honek omenaldi hau, eta guk gura geunkena Bizkaiko herriaren eskerronaren adierazgarri eta, ziur nago, Euskal Herriaren eskerron eta mirespenaren adierazgarri be, ehin batean, gerta daitekeena da.

Aita Villasante euskaltzain egin zanean, hementxe, Bizkaiko Foru Aldundian, egin eban sarrera-hitzaldia. Denborak, ordukoa eta gaurkoa, ez dira bardinak, ez Aita Villasanterentzat, ez euskararentzat, ezta guretzat ere. Baina pozik gagoz gaur Aita Villasanteri, hainbeste urteren buruan, omenaldi hau egin ahal deusogulako Foru Aldundi honetan.

Gaurko egun honen gomutagarri legez, artista pintore ezagun bati, Jesus M.^a Lazkanori, hain zuzen, Aita Villasanteren erretratu bat agindu deusogu, eta, Jainkoa lagun, erretratua eginda egon daitenean, Foru Aldundiko bibliotekan ipiniko dogu, hara joan daitezcan guztiek Aita Villasanteren erdua begien aurrean izan daien.

Bestalde, berak oraintxe Bilboko euskal idazle bat darabil esku artean, Aita Mateo Zabala. Eta zer gauza ederragorik guretzat hori argitaratzen Aita Villasanteri laguntzea baino? Horixe izango da gure aldetik pozik egingo deusogun beste oparia, gure oparia barik, berak geuri egiten deuskuna bada be.

Eta azkenik, Bizkaitar guztien izenean, atsegirik handienaz eskeiniko deusot oraintxe ozpakizun honen oroigarritzat honako plaka hau, honelaxe dinona:

“Bizkaiko Foru Aldundiak
AITA LUIS VILLASANTE-ri
euskararen eta Euskal Herriaren alde
egin duen lan handiagatik.
Bilbo, 1994ko urriak 28”.